

LAN OSASUNeko KOMITEA –2019/06/18

Bileran jorratu ziren gairik interesgarrienak ekarriko ditugu, hona hemen:

■ **LAN ISTRIPUAK.** Prebentzio Zerbitzuak ematen dizkigun agirietan oso deigarria izaten da langile finkoen eta bitartekoen artean dauden alde izugarriak, istripuak lan izaerakotzat jotzerako orduan.

Oro har, Justizia Administrazioak ez du eragozpenik jartzen istripuei lan izaera onartzerakoan (funtzionario titularren kasuetan). Haatik, mutua –gurean MUTUALIA (bitarteko funtzionarioen eta laboralen arloan)- lan izaerako bajak ukatzen ditu gehienetan. Berrito bidaltzen dizuegu 2017-06-15ean kontu hau sakon aztertzen genuen informazio orria; LEI zela-eta egiten zituzten deskontuak salbu –murrizketen aurreko garaira lehengoratu zuten egoera iaz-, beste guztiak berdin jarraitzen du. Idazki hartan esan bezala, gertaera bat lan-istripuzat jotzen ez duen mutuarekin konforme egon ezean, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalan (GSIN) egin behar duzue erreklamazioa gertakizuna alda dezaten. Hori gertatzekotan gure delegatuekin hitz egitea badaukazue.

■ **INDARKERIA EPAITEGIAK.** Hauteskunde sindikalen kanpaina bete-betean geundela zuzendariak idatzi bat izenpetu zuen esanez, CCOO sindikatuarekin izandako elkarrizketa batzuen ondorioz, indarkeria epaitegietan hainbat neurri ezarri behar zituztela, lan-baldintzak zein herritarrei emandako arreta hobetze aldera.

Isabel Gabriel Justizia Administrazioko Zuzendariak –komiteko presidente gisa- behin eta berrito esan zuen EAEko indarkeria epaitegi guztietarako azterlan oso bat abiatu dutela, ezertxo ere gehiti gabe. Ezin izan genion atera inolako ñabardurarik, ezta noizko daukaten aurreikusita hastapena. Baina, zer demontre, zerbait aurreratua izango zuten hain modu nabarmenean iragartzeko, esandako sindikatu horri mesedea egiteaz aparte!

■ **OBRAK, KLIMATIZAZIOA...** Obren Zerbitzuko arkitekto Luzio Fernandez de Retanak martxan dauden edo aurreikusten dituzten proiektuen berri eman zigin.

KLIMATIZAZIOA: hur-hurreko planak Atotxako eta Gasteizko eraikin judizialak dira, kontratazio agiriak aurkeztuta omen daudelarik. Hala ere, ez ziguten esan noiz hasiko diren. Getxo eta Irun ere esleipen fasean daude baina, antza denez, kontratazio mahaiak galtzak bete lan du. Horrekin batera komentatu zuten EAEko eraikin judizial guztietarako mantentze-lan zerbitzua kontratatzea ere uztailearen 9an berrikusiko dutela. Klimatizazioarekin dauden arazoak behin betiko konpontzen ez dituzten bitartean, gailu eramangarriez hornituko dituzte bulegoak. LABek zehaztu zuen gailu horiek izan daitezela pinguino izenarekin ezagutzen diren horietakoak, haizagailuak ez direlako behar bezain eraginkorrak horren altuak diren tenperaturei aurre egiteko. Irungo artxibo osoa klimatizatzeke LABek egin zuen eskaerari ezetz esan zuten, ordenagailuarekin erregistro-zereginak egiten diren espazioa mugatu eta ixteko eskatu genuen. Esan zuten badaudela aztertzen kabina bat jartzeko aukera.

IGOGAILUAK: lehendabizi Buenos Aireseko eta Gasteizko igogailu hondatuak berritzea izango da. Datorren urtean Getxoko eta Irungoen txanda izango da.

ARGIZTAPENA: Albiako eraikinaren argiztapena LED motako argiekin ordezkatzeko asmoa daukate. Horrezaz gain, ba omen dago Instalazioen Zerbitzuaren egitasmo bat eraikin judizial guztien argiztapena

berritzeko. LAB sindikatuak berriro gogorarazi zuen Prebentzio Zerbitzuak 2017ko ekainean bildutako neurriak jasotzen dituen txostena badagoela; berorrek dio Irungo artxiboko hainbat lekutan argiak ez dituela ematen legeak xedatzen dituen luxak. Gaur artean ez dira ezarri proposatutako neurriak, beraz, LABek jakinarazi zien lan ikuskaritzara joko genuela denbora tarte txiki batean konponketak etorri ezean.

ASKOTARIKOAK: Atotxako sotoan dauden filtrazioak (aurten); Gernikako eraikuntzan dauden filtrazioak (aurten eta datorren urtearen artean); Eibarreko 2. sotokoa, obrak hasita; San Martineko dorrea, berehala; Albiako estalkiaren erdia iragazgaiztea, (badabiltza konpontzen); Atotxako leihoak iragazgaitzea/zigilatzea, datorren urtean; Buenos Aireseko artxiboko obra, errodatzen duten armairu berriak barne egingo dute; aztertzen ari dira Atotxan ireki daitezkeen leiho txikiak instalatzea, baina leiho handiak baztertu egin dituzte.

MOKETA: honako hau onartu dute: inprimagailuen inguruan dagoen moketa erauztea, osasunean izan ditzakeen eraginak txikitze aldera; moketa guztiak eliminatzea ere aztertzen omen dabilta. Urteak eta urteak dira sindikatuok moketa eraikin judizial guztietatik kentzeko eskatzen gabiltzala; bada, horri erantzunez, Obren Zerbitzuko arduradunak esan zigun Eusko Jaurlaritzarekin lan egiten duen enpresak (bere iritzi, sektorean onena) gomendatzen duela binilozko zoruak baztertzeko (denborarekin izurtu egiten da) azken belaunaldiko moketa jartzeko. Tira, zenbait egoeratan eta mantenu-lana eta garbiketa kontu handiz zainduz gero, baliteke emaitza hobea izatea baina ez dugu uste hori Justizia Administrazioaren kasua denik. Hortaz, LABek jarraituko du eskatzen moketa ken dezatela eraikin judizialeetatik. Ziurtatu ziguten Barakaldon, lehen solairutik laugarrenera kendu behar dutela moketa eta zoru teknikoa aldatzera doazela, hirugarren eta laugarren solairuko multigeletan izan ezik. Gasteizen gertatzen dena ezberdina da zoruari akabera ematea bukaeran jartzen baita. Bi aukera daude: moketa ala biniloa, eta saila aztertzen ari da.

■ **ARRISKU PSIKOSOZIALEN EBALUAZIOA, BUENOS AIRES.** 2018ko azaroan hasi ginen inkestekin behar besteko datuak batzeko eta, horrela, txostenak eratu ahal izateko. Horiek eginda ebaluazioa osatzea zen hurrengo urratsa eta horretantxe oinarriturik beharrezkoak ziren neurriak ezarri behar ziren.

Sinistu ezinik gaude! Pilar Ruiz Prebentzio Zerbitzuko arduradunaren hitzetan, bere esku dagoen guztia ari da egiten QUIRÓN enpresak sinatu zuen kontratua bete dezan. Hurrengo pausua da zuzendariak berak esku hartzea gai honetan; demanda bat abiatzez ere hitz egin zen.

Kontua da bateko dela ala besteko dela, Justizia Administrazioan ez dugula lortzen burutzea inolako arrisku psikosozialen ebaluaziorik. Batzuetan inkestei balioa emateko beharrezkoa den parte hartzea erdietsi ezinean; beste batzuetan, garaiko zuzendariari ez zituelako gustuko emaitzak; eta, orain, kontratatutako enpresa deskalabru hutsa delako. Penagarria da inoiz ez burutu ahal izatea arrisku psikosozialen balorazio bakar bat ere ez; areago kontuan hartzen badugu duen garrantzia mekanismoak ezartzerakoan eta langileen osasuna babesterakoan. Oraingo ezin dizuegu esan zer gertatuko den ebaluazio honekin; dena den informazioa jasotzen dugun bezain laster jakinaraziko dizuegu.

24/06/2019

GURE ORDEZKARIAK

- ARABA: Leila Martin (945004919)
- BIZKAIA: Elena Cea (944016525)
- GIPUZKOA: Begoña Gartzia (943004361)